

EUSKERAZALEAK

Gure toki-izenetan aberastasun aundia dago. Or agertzen diran izen jator asko gaur galduta daukaguz, baiña ortxe aurkitzen da iztegi egokia, gaur ezin esan ditugun gauza askoren izenak errez eta ederki adierazteko.

* * *

Urkijo, Urkia, Urkiaga, urkitik datorkiguzan abizenak Igorre'n ainbat doguz, bai-ta etxe ta auzunerik be. Urkizu, Urkia, Urkitze...

Askotako baiña be geiago dakigun aldi onetan, urkia zer eta zelangoa dan jakiteko baiña, Urkiola'raiño joatea onena litzakigu, urkiaren barririk an diran abadeak ondo dakie-ta.

* * *

Gereta, Mallubi'koen abizena, deitura, non sortua dan ez dakidan arren, Gereta da. Eta Ubiritxaga ta Garakoi tarteko solo-zelaiaren baztertxu bateko muñoaren ganean basetxe barritzatua dogu, Gereta izenaz ezagutua.

* * *

Guztiok ete dakigu gero, Gereta'k zer esan gura dauskun? Jakinkeririk izango dogu; zer dirauskun jakin gura ba'dogu baiña, jakinkeriak alde batera uzi eta jakintzan murgildu obe litzakegu.

* * *

Etxe, bizitoki, etxauntza latagaz, zur-olaz eta beste zer edo zerez esiturik izatean datza etxola, eskorta, esparru, gereta'ren izatea.

Asaba zarrengandik datorkuzan izenak izanik, ikasi-bearra dogu, labe-aurrera joate

LANDAJUELA'tar A'k

Saski-naski

'Selecciones" illerokoa euskeraz

Saski-naski

RAKURGAi atsegifia euskera on eta errezean

Saski-naski ' k

dakizun euskera apaindu egingo dautzu

Saski-naski ' k

kasten dozun euskerea erreztu egingo dautzu

Saski-naski

irakurri, zabaldu

Saski-naski

EUSKERAZALEAK

Euskerea irakasten dogu, irakasleak sortzeko.

Ikastaroak gure jakintza zabaltzeko.

Algitalpenak, irakurleentzat.

Egutegia etxeetarako.

ZER aldizkaria, bazkideentzat ta adiskideentzat.

Kili-Kili'ri laguntza emoten dautso-gu.

Sariketak sortzen doguz.

Euskalkiak, Bizkaia'n Bizkai'koa, indartzen doguz.

**EUSKERAZALEAK gara
ZATOZ GUGAZ**